

JOHN RAWLS ADOSTASUN POLITIKOAREN BILA. ERLIJIOA ETA GIZARTE GARAIKIDEETAKO PLURALISMOAREN KUDEAKETA

Tesiaren egilea: Xabier Agirre Urteaga

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Baloreen Filosofia eta Gizarte Antropologia

Tesi-zuzendaria: Jesús María Casquete Badallo

Tesiaren laburpena:

Tesiak bi bide osagarri jarraitzen ditu. Alde batetik, azterketa testualista baten bitartez, Rawlsen teoriaren egitura kontzeptuala eta bere aldaketak erakutsi nahi ditu, eta, bestetik, azterketa kontestualista baten bitartez, AEBetako giro erlijiozalea agerian utziz, Rawlsen teoriaren eta beronen aldaketaren arrazoiak argitu nahi ditu.

Ikerketaren mami nagusia Rawlsen pentsamenduaren bilakabidea da. Beraren bi lan nagusietan (*A Theory of Justice* —TJ, 1971— eta *Political Liberalism* —PL, 1993—), batetik bestera ikusten den aldea arrunt deigarria da, teoriaren barnetik egindako aldaketa delako. Liberalismotik, komunitarismotik eta errepublikanismotik etorritako kritikei muzin eginez, Rawls bere teoriaren muinean legokeen akats larri bati irtenbidea ematen saiatzen da, TJren ondoko lan guztietan. Akatsa, modu laburrean esateko, hauxe litzateke: teoriaren hastapeneko moldeak Kantetik zor handiegia duke. Beraz, *zuzentasuna ekitate gisa* teoria rawlsiarra ez litzateke egonkorra, desadostasun gaindiezinak sortuko bailituzke teoria ez kantiarren artean.

Arazo hau saihesteko, hasierako egitura kontzeptuala aldatu egiten du. TJkoa *jatorrizko egoeraren* eta *gogoetazko orekaren* gainean eraikitzen da, eta PLkoa *arrazoizkotasunaren* gainean. Biek kapitulu luze bana hartzen dute ikerketa honetan.

Bi egituren arteko jauzian teoria metafisikoa teoria politiko huts bihurtu nahi luke Rawlsek. Horretarako kontzeptu berri batzuek garrantzia hartzen dute. Kontzeptuon bitartez akordio politikoa posiblea dela erakutsi nahi da. Kontzeptuok *arrazoizkotasuna*, *adostasun elkargurutzatua* eta *arrazoimen publikoa* dira. Alabaina, *arrazoizkotasunaren* mugen barnean arazoak sortzen dira Rawlsen teorian. Nonbait, TJko kantiartasunetik ihes egiteko, gizakiaren definizio arin bat erabili nahi luke bere teoria politiko huts berri horretan. *Gizaki aske eta berdinen* kontzeptu rawlsiarra, aitzitik, ez da zeharo arina, *pertsona moralaren* kontzeptuarekin batera baldin badoa, gutxienez.

Ikerketa honetan, halaber, teoria rawlsiarraren egiaztagarritasun-froga moduko bat egin nahi izan da. Aurrena AEBetan erlijioak izan duen eta duen garrantzia aztertu da, Tocquevilleren laguntzaz. Gero liberalismoaren eta erlijioaren arteko

harreman bihurriak laburtu dira, eta, ondoren, Rawlson teoria erlijioaren ispiluaren aurrean jarri nahi izan da.

Erljioaren adibidearekin arazoaren muina garbiago ikusten da. Egia absolutuaren jabe dela uste duen teoria orohartzailea izanik, erlijioak izaera aldatu egin beharko luke, bestearen arrazoiak entzuteko prest egoteko. Hauxe izan zen Lockek proposatutakoa, erlijioak eremu politikotik kanpora egon behar duela, alegia. Alabaina, asmo hori AEBetan ez da betetzen hain erraza.

Ikerketa honek aztertutako adibideetan, zailtasun hori agerian geratzen da. AEBetako historian, askotan teoria orohartzaileek, erlijioek, askatasunaren alde jokatu dute; esaterako, esklabotzaren aboliziorako arrazoiak guztiz erlijiosoak izan ziren Lincolnen ahotan XIX. mendean, eta Martin Luther Kingenek berdin egin zuen eskubide zibilen alde XX. mendean. Beste hainbat adibidetan, ordea, alderantziz gertatzen da, alegia, erlijioa modu ausartegian sartzen da eremu publikoan; esaterako, eskoletako otoitz derrigortuaren, abortuaren eta lagundutako suizidioaren aferetan.

Rawls ez da oso tinko mantentzen kontraesan hauen guztien aurrean. Historian zehar *arrazoimen publikoaren* muga aldatu egin dela esanaz desenkusutzen da, esklabotzaren abolizioan eta beste borroka batzuetan esku hartzea ontzat emateko. Areago, inoiz arrazoi publikoen artean blokeoa emanaz gero, arrazoi orohartzaileak ere onartuko lituzkeela esatera heltzen da Rawls.

Finean, Rawlson teoria helburu garbiak eta intentzio zuzenak dituen teoria da: egungo pluralismo filosofiko eta erlijiosoaren garaian hiritar guztiak antolaketa politiko bateratu batean biltzea. Rawls modu egoki antzeko batean saiatzen da. Alabaina, teoria aurrekari-eskari gogor batetik abiatzen da, giza *arrazoizkotasuna* aurrebaldintza ezarriz, eta kasu partikularretan ez da oso ongi moldatzen, ikerketa honen iritzirako.

IBARGUEN-CACHOPIN KRONIKA: EDIZIOA ETA AZTERKETA

Tesiaren egilea: Julen Arriolabengoa Unzueta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta euskal ikasketak

Tesi-zuzendaria: Joseba Lakarra Andrinua

Tesiaren laburpena:

Lehen helburua *Crónica de Iburgüen-Cachopín* izenaz ezaguna den eskuiz-kribua, aurki daitekeen bakarra, 1580-1620 bitartean idatzia, transkribatzea eta argitaratzeko moduan apailatzea izan da. Jatorrian egileek osatutako lanaren herena baino ez da egun kontserbatzen, bi agiritegitan banatua eta oso egoera kaskarrean. Materialok bildu, irakurri eta antolatu ondoren, CESIC-en irizpideei jarraiki transkribatu ditugu, lana hiru tomotan antolatu eta berreraikiz, egileen asmoak gogoan. 2000 folio inguru transkribatu dugu, eta inoiz argitaratu gabeko berri historiko ugari utzi dugu ikertzaileen esku, bereziki Bizkaiko leinuei buruzkoak.

Egileek *Corónica General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaína* deitu zuten lan hau XVI. mendeko historiografiaren adibide eder eta erakargarria da, baina euskal hizkuntzalaritzarako aparteko garrantzia du, bertan aurkitzen baitira euskararen literaturarako eta hizkuntzaren historiarako balio handia duten zenbait material eta lekukotasun.

Testuaren azterketan murgildurik, egileen inguruan zegoen nahasmena argitu eta datu berri zenbait eman ahal izan dugu. Halaber, egileek erabilitako iturri bibliografikoak aztertzean ezezagunak genituen autoreak aurkitu ditugu, euskal historiografian bere garrantzia izango dutenak. Kronika honetako kontakizunak aintzat hartuta eta garaiko histolariaren lekukotasunekin alderaketa eginez, XVI. mendeko euskal historialarien imaginarioa osatu dugu, datu interesgarri bezain harrigarriak plazaratuz, eta XVI. mendean gure hizkuntzak bizi zuen egoera sozial eta juridikoa ezagutu ahal izan dugu, azal samarretik bada ere.

Euskal hizkuntza eta literaturaren ikuspegitik *Kronikak* utzitako ondarea txikia da kantitatean (133 berso 12 kantatan banatuak, 20 lerrotan bil daitezkeen 2 prosazko testu, 8 esaera, 26 esaldi, 156 hitzeko hiztegiño bat, 67 hitz solte, 68 euskal izen eta goitizen, 171 izenen azalpen etimologikoak), baina handia garrantzian, euskara zaharrak idatzirik utzitako lekukotasunetan lehenetakoak baitira. Hizkuntza-ondare honen azterketan “Canto de Lelo” gaztelaniazko izenaz ezagun egin zen Kantabriarren Kantuaren azterketan murgildu gara. Ondoren, *Kronikako* eresi eta kantuak, ahozko tradizioetik jasoak, atal berri batean berreditzea izan da gure lehentasunetako bat, Errodrigo Zaretekoen eresiari eta Butroeko Andreamen Eresiaren bertsio ezezagunari, biak argitarageak, toki berezia emanez. Andramendiko eskriturak deritzen prosazko bi testuei ere tarte zabala eskaini diegu.

Corónica General honetan aurki litezkeen euskarazko materialen bilketa eta azterketan aurrera eginez, atal banatan sailkatu ditugu esaerak, esaldiak, etimologiak eta gaztelaniazko prosan emandako euskal hitz solteak. Eta tesi zabal honi amaiera emateko *Ibarguen-Cachopín Kronikak* eman dizkigun euskarazko materialen hizkera aztertu nahi izan dugu ikuspegi dialektologikotik zein historikotik.

Ibarguen-Cachopín Kronika ikerlarien eskura jartzea lortu dugu, ahal izan dugun ongien bildurik, ordenaturik eta transkribaturik. Gure ustetan lan-ildo interesgarriak ireki ditzakete lan honetan bildutako materialek, edota erreferentzia interesgarriak izan daitezke jadanik irekirik direnetan, zientzia-eremu anitzetan, hala nola Historiografian, Historian, Hizkuntzalaritzan, Etnografian eta abarretan.

GAITASUN KOMUNIKATIBOA

ETA HIZKUNTZEN ARTEKO ELKAR ERAGINA

EAE-KO HEZKUNTZA ELEANITZEAN

Tesiaren egilea: Nekane Goikoetxea Agirre

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Psikologia Ebolutiboa eta Hezkuntzaren Psikologia

Tesi-zuzendaria: Jasone Cenoz Iragui

Tesiaren laburpena:

Hurbilpen kualitatiboa erabili dugu formulatutako ikerketa-galderei erantzuteko. Eleanitz izeneko egitasmoan diharduten D ereduko 24 gaztek osatu dute lagina. 3H ikasten hasteko adin-egokitasunaren auziari oraindik landu ez den alderdi batetik eutsi diogu: ikasleen Gaitasun Komunikatiboa eta inplikaturak dauden hizkuntzen arteko elkar eragina aztertu ditugu, hurbilpen kualitatiboak eskaintzen duen sakontasunez, eta, atzerriko hizkuntzaz gain, ikasle elebidunen beste bi hizkuntzak aintzat hartuz. Gainera, ikasleen ama-hizkuntzaren faktoreak D ereduko ikasle hauen eleaniztasun-prozesuan duen pisua neurtu dugu, gure hezkuntza-eredu zabalduena izan denari etorkizunerako hobekuntzak proposatze aldera.

Gaitasun Komunikatiboa definitzea helburu duten eredu teorikoetatik abiatuta, Gaitasun komunikatiboa aztertzeko bide bat proposatzen dugu tesi honetan. Zehazki, Celce-Murcia, Dörnyei eta Thurrellen eredia (1995) erabili dugu oinarri gisa. Eredu honek Diskurtso Gaitasuna hartzen du Gaitasun Komunikatiboa osatzen duten azpi-gaitasun guztien ardatz gisa. Beraz, metodologikoki, ikasleek sortutako hainbat testuera ezberdinen azterketa sakonean murgildu gara. Ikasle bakoitzak hiru hizkuntzetan sortutako 13 testutan azpi-gaitasun bakoitzeko hamai-ka aztergai aztertu ditugu. Jakina, testu mota bakoitzean aztergai ezberdinak begiratu ditugu. Hortaz, eredu teorikoetan zedarritutako osagaiak hizkuntza-ekoizpen errealetara ekarri eta modu integratuan aztertzeko modu bat proposatu dugu. Guk garatutako tresna lagungarri gerta liteke Gaitasun Komunikatiboa ikasgeletako didaktika nahiz hizkuntza-ebaluaziora moldatu beharrea daudenentzat. Hizkuntzaren kalitatea parametro komunikatiboetara ekartzen saiatu gara.

Bigarren ekarpen nagusi gisa esan liteke ingelesa, eskola elebidunaren eremuan, intentsitate baxuan ez dela eraginkorra gure ikerketan. Ondorio nagusi hau, hortaz, bat dator adinaren auzia ikertu duten hainbat lanen emaitzekin. Lan horiek nagusiki atzerriko hizkuntzaren azterketa egiten dute, ez ikasleen bestelako hizkuntzena; hurbilpen kuantitatiboa erabili ohi dute eta ikuspegi linguistikoa jorratzen dute gehienek. Gure lanean emaitza bertsuak lortu izanak ahalbidetzen digu hizkuntza-eredu goiztiarraren nagusitasuna erlatibizatzeke proposamena luzatzea.

Hirugarrenik, hizkuntzen arteko elkar eraginari dagokionez, ingelesezko ariketetako transferren iturri-hizkuntza nagusia gaztelania dela azpimarratu nahiko genuke. Euskara, ordea, helburu metalinguistikoetarako erabiltzen da batez ere.

Ikasleen 1H-k ez dauka baieztapen honetan eraginik. Beraz, tipologikoki xede-hizkuntzatik gertuen dagoen hizkuntzatik transferitzen dute ikasleek. Hizkuntza-tipologia zein psikotipologiaren garrantzia, bada, bat dator aztergai izan ditugun ikerketen ekarpenekin. Bestetik, 2Htik transferitzeko joera nabarmena da euskara lehen-hizkuntza dutenen aldetik. Hori ikusi dugu bai transferretan eta baita laguntza eske zein kode-aldaketetan ere.

KULTURGINTZA ESPARRUKO ERAGILEEN TRADIZIO INTELEKTUALAK: KULTURGILEAK GIZARTE MUGIMENDUETAN

Tesiaren egilea: Ane Larrinaga Renteria

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Soziologia

Tesi-zuzendaria: Mila Amurrio Velez

Tesiaren laburpena:

Tesiak bi ardatz ditu: intelektualak eta gizarte-mugimenduak. Intelektual modernoaren erabateko gainbehera baieztatzen duten diagnostikoen aurrean, tesi honetan proposatzen da aro historiko bakoitzak eginkizun intelektualak bete ahal izateko baldintza eta jarduera-gune jakin batzuk eskaintzen dituela. Ildo horretatik abiatuta, Beranduko Modernitatean gizarte-mugimendu berriak kulturgileen rola eta nortasunak berreraikitzeke agertoki instituzional egokiak izan daitezkeela ikusi izan da. Izan ere, ohiko ikuspegitik aztertu beharrean –hau da, mobilizazioaren eta erakundearen ikuspegi soiletik–, eragile anitzez osaturiko gune kognitibo gisa aztertu dira gizarte mugimenduak. Hartara, ondorioztatu da ororen gainetik mugimenduak ezagutza-ekoizle direla: hain zuzen ere, esparru kontzeptual eta intelektual horietan indarrean dauden errealitate sozialaren definizioen ordeko interpretazio-markoak sortzen dira. Baliabide asko mobilizatzen dute mugimenduek beraien helburuak lortzeko, alegia, interpretazio-marko berri horiek eraikitzeke. Baliabideon artean, gizarte garatuetako lehia sinbolikoetan ezinbestekoak diren kulturgileak agertzen zaizkigu.

Aurkeztutako proposamen teorikoari jarraiki, euskalgintza deritzan mugimenduko zenbait kulturgileri egindako sakoneko elkarrizketetan oinarritu da landa-lana. Landa-lanean, batetik, mendeko kultura-esparru batean –euskal kulturari– kokatuta dauden kulturgileek mugimenduan egindako rolen eraikuntza aztertu da eta, bestetik, frankismo osteko garaian Hego Euskal Herriko euskalgintzan aipatu intelektualek sortutako interpretazio-marko gatazkatsuak ikertu dira.

